

Nazioarteko adituek Arabako Mendialdea bisitatuko dute, aztertzeke natura ardatz hartuta garatzeko dituen aukerak

Herbehereak, Belgika, Suedia eta Alemania dira Arabako Foru Aldundiaren bazkideak Wildlife Economy Europako proiektuan, zeinak biodibertsitateak eta ingurumenak aktibo ekonomiko gisa duten balioa nabarmentzen baitu

Foru Aldundiak kokatzen du Arabako Mendialdeko Kuadrilla gune estrategikoa bezala, landa eremuko gizartea eta ekonomia baliabide natural eta ekoturistikoak ardatz hartuta garatu dadin

Gasteiz, 2019ko azaroaren 28a. Nazioarteko adituek Arabako Mendialdeko zenbait natur baliabide bisitatu dituzte gaur goizean, Araban hasi baita lanean Wildlife Economy proiektuko lantaldea. Herbehereak, Belgika, Suedia eta Alemania dira, zehazki, Arabako Foru Aldundiaren bazkideak proiektu honetan, zeinaren parte hartzaileek uste osoa baitute natura aktibo ekonomikoa dela eta tokiko garapena sustatzen duela. Horrela, proiektu horren bidez, Arabako eskualde horrek naturarekin eta ekoturismoarekin lotuta eskaintzen dituen aukerak aztertuko dituzte, etorkizuneko garapenari begira.

“Kontserbaziorako neurriak ez dira alferrikako gastua, etorkizunerako inbertsioa baizik. Landa eremuetako erronka demografikorako irtenbide nagusia da. Lanbide tradizionalak poliki-poliki desagertzen ari direnez gero, naturarekin lotutako ekonomiaren balioa nabarmendu beharra dago, aukera paregabea baita, eta ezin diogu horri muzin egin”, azaldu du Ingurumen eta Hirigintza Saileko zuzendaria Nati López de Muniainek, nazioarteko adituen taldeari egindako ongietorri ekitaldian.

Horiek horrela, Europako ordezkariak antzinako asfalto meatzeen paisaia bisitatu dute, bai eta Izkiko Parke Naturala ere. Horrez gain, Vasco-Navarro ibilbide berdearen zati bat egin dute bizikletaz. Aisialdirako aukera jasangarri hori 220.000 txirrindulari eta paseatzailek baino gehiagok erabiltzen dute urtean.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Europako proiektu horri esker, Arabako Mendialdeko hainbat eragilek aukera izango dute beste herrialde batzuetako baliabide natural eta ekoturistikoak ezagutzeko, besteak beste, Limburg probintziako (Herbehereak) rewilding prozesua, Suedia iparraldeko Saami herri arrantzaleak edota Oder Delta delakoa eta hango hondartzak (Alemania).

“Proiektu honek aukera emango digu beste herri batzuetako jardunbide egokiak ikasteko, naturatik eta basa bizitzatik abiatuta, eta erakutsiko dugu garrantzizko estrategia ekonomikoa dela, berritzailea, bideragarria eta erakargarria”, azaldu du López de Muniainek Antoñanan dagoen Vasco-Navarro ibilbidearen interpretazio zentroan, hain amaitu baita goizeko bisita teknikoa.